



AHOZKOTASUNA

Jendaurreko jarduna elkarrekin eraikitzen

Gaur egungo gizartean, ezinbestekoa da komunikatzaile eraginkorra izatea. Jendaurrean komunikatzeko izua gainditu beharra daukagu. Euskarak erabileran ugartu eta zorrotz beharra dauka bere izatea... Helburu horiek erdieste bidean, ahozko hizkuntzak aspaldi ez bezalako indarra hartu du geure diskurtsoetan.

JOSUNE ZABALA

Irudia: Alai Zubimendi

EZAGUN ETA ERREPIKATUAK dira ahoz-kotasunaren aldariaren oihartzunak hizkuntza irakasle eta ikasleengan; komunikatzaileen artean ere bai, zalan-tzarik gabe. Deiadarrak izanagatik, ez dira egote hutsean dauden diskurtso

antzuak. Gaiari erantzuten ari gatzaiz-kio Huhezi fakultatearen Mendeberri hezkuntza proiektuan (Mondragon Unibertsitatea), eta geure egitekoa ere bada hainbatentzat ezezagun diren asmo onen berri ematea.

Lehenik, konturatzea

Irakasletza Ikasketak egiten hasten direnei euskara irakasleok bi galdera egin ohi izan dizkiegu eskolara etor-tzearekin bat: "Zure ustez, beha-rrezkoa da ahozko hizkuntza ikas-

tea? Eta ahozko hizkuntza irakas-
tea?”. Irakasle-gaiak zalantza gutxi-
rekin erantzun ohi diote ustezko gal-
dera errazari: “Ez, hitz egitea
nahikoa da horretarako”.

Haren ondotik, gure galderak:
“Zenbat hitz egin izan duzu eskolan?
Zer egiteko, nori erantzuteko hitz
egin duzu? Nola sentitu izan zara
horrelakoetan? Ahozko azterketarik
egin al duzu sekula?” Eta erantzune-
tan, aurreko ukazioaren kontraesa-
nak: “Irakasleari erantzuteko hartu
izan dut hitza; ikasgairan batean aur-
kezpenen bat egin izan dut; ahozko
azterketarik ez dut sekula egin eta ez
nuke egiterik nahi; oso deseroso sen-
titu izan naiz jendaurrean hizketan”.

Egoera ikusita ondorioztatzen
duguna da eskolan ahozkotasunak,
oraindik orain, ez duela toki handirik,
egiaz deseroso egoten gara ahoz
jendaurrean komunikatu behar dugu-
nean... Horretan trebatu beharra
daukagula sentitzen dugu. Kontura-
tzen gara zeinen beharrezko den
txiki-txikitatik ahozko jarduna lan-
tzea, izan geure lehen hizkuntzan,
izan gainerako hizkuntzetan: alderdi
ludikoa landuz lehenik, eta komunika-
zio konplexuagoetan murgilduz
ondoren.

Hurrengo urratsa izaten da ahoz-
kotasunean murgiltzea. Jendaurrean
ahoz komunikatzen ikasteko tresnak
ikasleei eskura jartzea. Eta garrantzi-
tsuena, ahozko komunikazioaren lan-
ketak samurrak eta gozagarriak izan
daitezen lortzea. Malkarra gustuko
tokian jartzea. Horretarako zer?
Hausnarketa, trebakuntza, talde-giro
ona eta hizkuntzarekiko jarrera bai-
korra lortzea dira lehenesten ditugun
eginkizunak.

Bigarrenik, bakar-lana

Ahozko hizkuntzaz dihardugunean,
badaukagu ulerkuntza murriztaile
bat: jendaurrean ahoz komunikatzen
trebatzea, oro bat, bakar-lana da.
Azalpen zientifiko bat ematea, ipuin
bat kontatzea, gertaera jakin baten
berri ematea, bertso bat osatzea...
hartzaile kopuru jakin baten aurrean
eraginkortasunez ideiak adierazi eta
eragitearekin lotzen dugu jardun
mota hau.

Oro har, ikasleek gisa horretako
lanketa sistematikoak aurrez egin
izan ez badituzte ere, aurkezpenak

egiten jarri izan dira, beraz, lehenik,
ezagun dituzten egoeratan presta-
tzen ditugu. Aldaketa handiena ego-
eraren formaltasuna izan ohi da.
Ikasleak unibertsitatean izaki, dis-
kurtsio formalak eraikitzen ikastea
zilegi da, etorkizunean ere gisa
horretako testuinguruetan ekoiztea

Eskolan ahozkotasunak, oraindik orain, ez du toki handirik, egiaz deseroso egoten gara ahoz jendaurrean komunikatu behar dugunean

egokituko baitzaie: gurasoei azalpe-
nak ematea, lanen aurkezpenak egi-
tea... Jardun honetan, egokitasunak
hainbateko garrantzia hartzen du
zuzentasunak, jakina.

Bakar-lan horretan trebatzeko
tresna nagusia da Genevako esko-
lak proposatzen duen Sekuentzia
Didaktikoa: azken helburu komuni-
katibo bat lortzeko eraikia den jar-
duera antolatuta eta jarraitua. Ikasle
gehienentzat ezezaguna, eta denbo-
rak aurrera egin ahala ikasgela bezain
eguneroko bihurtzen dena.

Etsaitzat jotzen dugun bideo-kamerarekin ikasten dugu ikaskideak grabatzen, eta hark gordeak ikus- entzunez oihartzun gara nola eraikitzen ditugun geure ahozko berbaldiak

Etsaitzat jotzen dugun bideo-
kamerarekin ikasten dugu ikaskideak
grabatzen, eta hark gordeak ikus-
entzunez oihartzun gara nola eraiki-
tzen ditugun geure ahozko berbaldi-
ak gorpuztuta eta arima. Bakar-lana
talde-lan bihurtzen hasten da, eta
abiapuntu malkartsuak zelaitzeari
ekiten dio, nahiz askorentzat peniten-
tzia denik ezin uka dezakegun.

Hirugarrenik, elkarlana

Baina, elkarrekintzan komunikatzen
gara... bakarkako ahozko berbaldiak
komunikazioaren izkina txiki besterik
ez dira, eta, unibertsitatea ezagutza
eraikitzeke gune izaki, ezin konforma
gintezke komunikazio gaitasuna hiz-
kuntza eskoletan bakarrik garatzeare-
kin. Izan ere, elkar-trukean antolatzen
ditugu munduarekiko eginak dauka-
gun errepresentazioak, pentsamol-
deak, sentimenduak eta usteak...
beraz, eduki bidez eta elkarrekintzan
ikasten dugu hizkuntza ere.

“Nik bidean ikasi dut gelan isilik
egon behar dugula irakasleak azalpe-
na eman bitartean, eta badakit orain
gutziz kontrakoa dela. Gu garelako
hitz egin behar dugunak”. Aurten, 2. mai-
lako ikasle bati hartutako hausnarketa
idatziaren aipua zen. Hizkuntza elkar-
lanean ulertu eta garatzen delako
kontzientziaren aztarna adierazle bat.

Ahozko komunikazioa eta jakin-
tza espezifikoa dialektikan eraiki-
tzen ere ikasi egiten da, eta horixe da
hezkuntzaren erronka nagusietako
bat. Baina zein estrategia erabili
behar ditu irakasleak ikasleen ahoz-
ko jarduna susta dezan? Zein tresna
didaktiko ditu irakasleak ikasleen
diskurtsoaren bideratzaile eta zuzen-
tzaile lanetarako?

Elkarrekintzan parte hartzen
duten pertsonen ezaugarri psikoso-
zial eta hizkuntzazko eragiten dute
komunikazioaren eraikuntzan. John
J. Gumperz adituak (1982) elkarre-
kintzaren ikuspegitik zorrotz zuen
kompetentzia komunikatiboaren azal-
pena: “Elkarrizketa-kooperazioa
sortu eta iraunarazteko hitzune-
k eduki behar duten konbentzio lin-
guistiko eta komunikatiboaren ezagu-
tza” da. Komunikazio gaitasuna era-
gile askok baldintzatzen dute:
pertsonen jarrerak, komunikazioa
hasteko moduak, partaideen jato-
rriak, pentsamoldeak, hitzune-
k euren arteko harremanaren gainean egin
duten interpretazioak... Hizkuntza-
laritza eta pedagogiaren alorrean
jakintza ahaztezinak dira horiek.

Hizkuntza-elkarrekintzaren iker-
ketari berriaz dagokio, beraz, ekin-
tza komunikatiboaren pertsonarteko
harremanak aztertzea; arrakasta
lortu edo porrot egin. Ahozkotasu-
naren lanketan, horretan ari gara
burugogor. ■